

## PIERRA LHANDE

## LEHEN PEREDIKUA

**1**  
Egün hon eta honki jin  
Euskaldünak eta besteak  
Pastoralak jüntantzen gütü  
Zalgizeko elgean

**2**  
Egünko süjeta dügü  
Pierra Lhande zalgiztarra  
Apphatian handitürük  
Herri hontako semea

**3**  
Poeta izigarria zen  
Eta nahi izan haboro !  
Etxekoer kausitzeko  
Jesüitetan da sartüko !

**4**  
Errotik etxekirik zen  
Aberri'ta leinüari !  
Kültüra ta mintzajeaz  
Lotü zen lan handiari

**5**  
Etxahun Barkoxeren obra  
Barnatik argialatü züan  
Hiztegi bat egin eta  
Euskalzain izan zen ordüan

**6**  
Zentzü honeko langile  
Elestari bazterrik gabe !  
Izkiribaño lehenik  
Gero besteer erakasle

**7**  
Pariseko irratian  
Izan zen peredikazale  
Pierra apeza bezala  
Praubeen süstengazale

**8**  
Foch marexala bezala  
Handiak zütüan ikusten  
Hetarik sos biltzen  
Hola eliza altxatzen

## LEHEN PEREDIKUA

**1**  
Egun on, eta ongi jin,  
euskaldunak eta besteak.  
Pastoralak juntantzen gaitu  
Zalgizeko elgean.

**2**  
Egungo sujeta dugu  
Pierra Lhande zalgiztarra.  
Apphatian handiturik  
herri honetako semea.

**3**  
Poeta izugarria zen,  
eta nahi izan haboro!  
Etxekoei kausitzeko,  
jesuitetan da sartuko!

**4**  
Errotik atxikirik zen  
aberrri eta leinuari!  
Kultura eta mintzairaz  
lotu zitzaion lan handiari.

**5**  
Etxahun Barkoxeren obra  
barnatik argitaratu zuen.  
Hiztegi bat egin, eta  
euskaltzain izan zen orduan.

**6**  
Zentzu oneko langile,  
elestari bazterrik gabe!  
Eskribau lehenik,  
gero besteei irakasle.

**7**  
Pariseko irratian  
izan zen predikatzaile.  
Pierra, apaiza bezala,  
pobreen sustengatzaile.

**8**  
Foch marexala bezala,  
handiak zituen ikusten.  
Haietatik sos biltzen,  
horrela eliza altxatzen.

**jin:** etorri**elge:** landa**sujet:** gai**haboro:** gehiago  
**kausitu:** atsegin eman**barnatik:** sakontasunez**elestari:** berriketari  
**eskribau:** idazle**marexal:** mariskal**sos:** diru

**9**  
Kargü batek deitü züan  
Hego Ameriketara  
Gero Madagaskar eta  
Azkenik Indietara

**10**  
Azkenekoz akitürrik  
Lotü zaion eritarzüna  
Bigarren gerlatik landa  
Memorian jarri ülüna

**11**  
Adiskide honak orai  
Hasten dügü pastorala  
Zalgize'ta Iruriko  
Aktürrek sar diteala !

**9**  
Kargu batek deitu zuen  
Hego Ameriketara.  
Gero, Madagaskar, eta  
azkenik Indietara.

**10**  
Azkenekoz akiturik,  
lotu zitzaion eritasuna.  
Bigarren gerlatik landa,  
memorian jarri iluna.

**11**  
Adiskide onak, orain  
hasen dugu pastorala.  
Zalgize eta Iruriko  
aktoreak sar daitezela!

**akitu:** nekatu  
**eritasun:** gaixotasun  
**landa:** ostean, ondoren

## 1. JELKALDIA

### Kolegiotik ihesi

12

#### Pierra Lhande

Ikusten dütüt izarrak  
Arhantze honen gainetik  
Segür niz ama so dela  
Bere kanberako leihotik

13

Bihar ezkapiko niz  
Amaren besarkatzera  
Gaztigatürik nizate  
Ama zaude parkatzera

14

#### Ossiniry apaiza

Pierra Lhande ezkapi da  
Zerrailü honen gainetik  
Norat debrü partitü da  
Berririk ez da Mauletik

15

#### Pauline Lhande

Zer debrü ari hiz heben  
Haur ahalke gabea  
Anjelüja ezagün dük  
Erorten dük ülüntzea

16

Ez hiz heben egoiten ahal  
Ez ikusi anaie-arrebak  
Ogi puska hau sakolan  
Joan hadi, besarka nezak

17

#### Allande herritara

Zer ari hiz, bide hontan  
Üluna beita hullantzen  
Ez dük haurren tenorea  
Karretan ahal haüt hartzen

18

#### Pierra Lhande

Üluna bertan hor dügü  
Badüt bi orenen bidea  
San Frantses kolejioan nüzü  
Eskerrak jaun gidaria

19

#### Pourret apaiza

Haur deskarata, hortxe hiza  
Hüllan hadi enegana  
Bi zarta horik hazka itzak  
Hori dük merexitü düana

## 1. JELKALDIA

### Kolegiotik ihesi

12

#### Pierra Lhande

Ikusten ditut izarrak  
Arhantze honen gainetik.  
Segur naiz ama so dela  
bere ganberako leihotik.

13

Bihar eskapatuko naiz  
amaren besarkatzera.  
Gaztigaturik naizateke.  
Ama, zaude barkatzera.

14

#### Ossiniry apaiza

Pierra Lhande eskapatu da  
zerrailu honen gainetik.  
Norat deabru partitu da?  
Berririk ez da Mauletik.

15

#### Pauline Lhande

Zer deabru ari haiz hemen,  
haur ahalkegabea?  
Angelusa ezagun duk;  
erortzen duk iluntzea.

16

Ez haiz hemen egoten ahal,  
ez ikusi anai-arrebak.  
Ogi puska hau sakolan,  
joan hadi. Besarka nazak.

17

#### Allande herritara

Zer ari haiz bide honetan,  
iluna baita hullantzen?  
Ez duk haurren tenorea;  
karretan ahal haut hartzen.

18

#### Pierra Lhande

Iluna bertan hor dügu.  
Badut bi orenen bidea.  
San Frantses kolejioan naiz.  
Eskerrak, jaun gidaria.

19

#### Pourret apaiza

Haur lotsagabea, hortxe haiza?  
Hullan hadi enegana.  
Bi zarta horiek hazka itzak.  
Hori duk merezi duana,

**Arhantze:** Biarnoko herria  
**so:** begira

**gaztigatu:** zigortu  
**naizateke:** izango naiz  
**-tzera egon:** -tzeko prest  
egon

**zerrailu:** hesi  
**partitu:** abiatu

**ahalke:** lotsa

**sakola:** sakela

**hullantu:** hurbildu

**karreta:** gurdi

**haiza:** al haiz  
**hullantu:** hurbildu

**20**

**Lagun bat**

Pio, jin hadi gureki  
ez düt heben Ossiniry  
Arroskilarik ez dük üken  
parkatüko deik hiri

**21**

**Beste lagun bat**

Hik egin beitük abilki  
gük ausartü ez dügüna  
Korajea üken beitük  
izanen hiz txapeldüna

**20**

**Lagun bat**

Pio, jin hadi gurekin.  
Ez dut hemen Ossiniry.  
Erroskilarik ez duk ukan.  
Barkatuko dik hiri.

**21**

**Beste lagun bat**

Hik egin baituk abilki  
guk ausartu ez duguna.  
Kuraia ukan baituk,  
izanen haiz txapelduna.

jin: etorri

kuraia: kemen

**KANTA I**  
**Haren potaren nahian**

**a1**

Aitak Espainian bizia galdü,  
 penan ütirik familia  
 Amatto Uruguayn bost hurrekila,  
 zer malür izigarria  
 Haren bizia, ustegabeko,  
 zorte ikaragarria!

**a2**

Non da gaixkia, desiratzea,  
 Amari pott-baten ematea  
 Anaie-arreber noiz-noiztenka  
 Goxoki besarkatzea,  
 Pott horen gatik izan ziteala,  
 ama, benedikatüa!

**KANTA I**  
**Haren potaren nahian**

**a1**

Aitak Espainian bizia galdu,  
 penan utzirik familia.  
 Amatto Uruguain bost hurrekin,  
 zer malur izugarria!  
 Haren bizia, ustegabeko  
 zorte ikaragarria!

**a2**

Non da gaizkia desiratzea  
 amari pot baten ematea?  
 Anai-arreben noiz-noiztenka  
 goxoki besarkatzea?  
 Pot horrengatik izan zaitezela,  
 ama, benedikatua!

**malur:** zorigaitz

**pot:** musu

**noiz-noiztenka:** noizik behin

**benedikatu:** bedeinkatu

**2. JELKALDIA****Gaztetasun nahasia****22****Stéphanie Lhande**

Ene bigerren ama zira  
Denbora joan da geroztik  
Baionarik jin ondoko  
Pierra date apeztürik

**23**

Orai behar düt partitü  
Aüzoer zütüt gomendatzen  
Jauregizahar hor dükezü  
Ni komentüan nüzü sartzen

**24****Pauline Lhande**

Zü zira heben argia  
Behar zütüt arren galdü  
Ikusten düzün akordeua  
Betikoz dizüt goititü

**25****Pierra Lhande**

Ürrentzen dira joküak  
Apphatiako meza isila  
Jakin ezazüe seminarioan  
Ez niz irus den mutila

**26**

Xarles Bordes jaun handiak  
Galtatzen deizt zombait kobla  
Sos hanitx irabaz niro  
Deitzen banintz Emile Zola

**27****Pauline Lhande**

Ez hiz deitzen Emile Zola  
Ützak arren poesia  
Bürüko minik üken gabe  
Kasü leküaren galtzea

**28****Valentine Lhande**

Ahalkegarri lizate  
Gure familiarentako  
Notak ez dütük gora  
Ordü hüke iratzartzeko

**29**

Pio, Maitek haüa nahasten  
Gisa hortan egün oroz  
Ez egin emazte ametsik  
Debekatü düanaz geroz

**2. JELKALDIA****Gaztetasun nahasia****22****Stéphanie Lhande**

Ene bigarren ama zara.  
Denbora joan da geroztik.  
Baionatik jin ondoko,  
Pierra dateke apaizturik.

**23**

Orain behar dut partitu.  
Auzoei zaitut gomendatzen.  
Jauregizahar hor dukezu.  
Ni komentuan naiz sartzen.

**24****Pauline Lhande**

Zu zara hemen argia.  
Behar zaitut, arren, galdu.  
Ikusten duzun akordeoia  
betikoz dut goititu.

**25****Pierra Lhande**

Ürrentzen dira jokoak.  
Apphatiako meza isila.  
Jakin ezazue: seminarioan  
ez naiz uros den mutila.

**26**

Xarles Bordes jaun handiak  
galdatzen dizkit zenbait kobla.  
Sos anitz irabaz niro,  
deitzen banintz Emile Zola.

**27****Pauline Lhande**

Ez haiz deitzen Emile Zola.  
Ützak, arren, poesia,  
buruko minik ukan gabe.  
Kasu lekuaren galtzea!

**28****Valentine Lhande**

Ahalkegarri litzateke  
gure familiarendako.  
Notak ez dituk gora.  
Ordua hüke iratzartzeko.

**29**

Pio, Maitek haua nahasten  
gisa horretan egun oroz?  
Ez egin emazte ametsik,  
debekatu duanaz geroz.

**jin:** etorri  
**dateke:** izango da

**dukezu:** izango duzu

**arren:** bada

**goititu:** gorde

**urrendu:** amaitu

**uros:** zoriontsu

**galdatu:** eskatu  
**kobla:** olerki  
**niro:** nezake

**arren:** bada, beraz

**kasu:** kontuz, adi

**ahalkegarri:** lotsagarri

**gora:** altu

**haua:** al hau

**debekatu duk:**

## KANTA II Arnegatze

### b1

Plazer dena ezin egin,  
hori da gaztigia !  
Egün oroz haboroxe  
pezatzen üztarea.  
Ene zortea hau zen,  
malurus izatea,  
Kasetalari, poesia,  
denetarik hürrüntzea.

### b2

Abil, abil, jarraiki'zak  
besteek eman bidea,  
Mündüko bideetan  
edirenen dük bakea,  
Ez ahatz nigarretan  
kitatzen düan maitea,  
Gure bihotzean den  
barneko segretüa.

### b3

Ühaste handienetan  
zoinen basa ühaitza!  
Arroka botxietan  
ixurten dü hezgaitza,  
Ber maneala, gük ere,  
mintzajea gor'altxa,  
Erhaztünik gabeko  
hitzetan esperantxa.

## KANTA II Arnegatze

### b1

Plazer dena ezin egin;  
hori da gaztigua!  
Egun oroz, haboroxe  
pezatzen uztarea.  
Ene zortea hau zen:  
malurus izatea;  
kazetari, poesia,  
denetarik urruntzea.

### b2

Habil, habil, jarraiki ezak  
besteek eman bidea.  
Munduko bideetan  
edirenen duk bakea.  
Ez ahatz negarretan  
kitatzen duan maitea,  
gure bihotzean den  
barneko sekretua.

### b3

Uhaste handienetan  
zeinen basa uhaitza!  
Arroka-botxuetan  
isurtzen du hezgaitza.  
Ber manerara, gük ere,  
mintzaira gora altxa;  
eraztunik gabeko  
hitzetan esperantza.

**gaztigu:** zigor  
**haboro:** gehiago  
**pezatu:** pisatu

**malurus:** zorigaitzeko

**ediren:** aurkitu

**kitatu:** utzi

**uhaste:** uholde  
**uhaitz:** ibai  
**botxu:** harkaitz

**SATANAK****30****Satan**

Irakuri duka kasetan,  
Baionako elizala  
Pierra Lhande agertu dela,  
osoki kasko pelat

**31****Beeltzebub**

Agitzen ziok, omen ere,  
bizarra duanean egiten  
Alde bata egin-eta  
Best' aldea ziok ahazten

**32****Bulgifer**

Piok ez dik honarzen  
Seminarioko bizia  
Ald'orotarik tinkatürrik  
Nahiago dik poesia

**33****Beeltzebub**

Pio ez da gizon bat,  
sinesten ahal duana  
gainetik jin aholkuak,  
Hoberenak direla

**34****Satan**

Nik maite diat errebel hau  
Ez due apez bat elkiko  
Guretako ederki duk  
Lana dugu baliatuko

**SATANAK****30****Satan**

Irakurri duka kazetan  
Baionako elizara  
Pierra Lhande agertu dela,  
osoki kasko-pelatu?

**31****Beeltzebub**

Agitzen zaiok, omen ere,  
bizarra duanean egiten.  
Alde bata egin, eta  
beste aldea zaiok ahazten.

**32****Bulgifer**

Piok ez dik onartzen  
seminarioko bizia.  
Alde orotarik tinkaturik.  
Nahiago dik poesia.

**33****Beeltzebub**

Pio ez da gizon bat  
sinesten ahal duena  
gainetik jin aholkuak  
hoberenak direla.

**34****Satan**

Nik maite diat errebelde hau.  
Ez dute apaiz bat ilkiko.  
Guretako ederki duk.  
Lana dugu baliatuko.

**duka:** al duk**kasko-pelatu:** burusoil**agitu:** gertatu**jin:** etorri**ilki:** atera



### 3. JELKALDIA

#### Aipu ametsak

35

**Pierra Lhande**

Franxoa Coppéeren antzerki bat  
Ari niz orai idazten  
Ene ametsa Parisen da  
Poeten artean bizitzen

36

**Amaury de Cazanove**

Ene gaztelüala aigü  
Nahi bahiz igaran goiti  
Ezagüteraziko deitzat  
Francis Jammes 'ta Pierre Loti

37

**Pierra Lhande**

Üdüritzen zaüt fatürra  
Gütün batekin horra da  
Senditzen dut orai dela  
Süperior maiteen üztea

38

Erraiten düe ez nizala  
Irakur legean hartürrik  
Eta seminarioko bortak  
Direla enetako zerratürrik.

39

So egizü gütün horri  
Zühain hortan itzaturik  
Igorten deiot tiro bat  
Plomü larriz kargaturik

40

**Amaury de Cazanove**

Cyranoren gisa dük  
Arraileria honartzen  
Fierki eta omoreki  
Egi'k zer beitük asmatzen

41

**Pierra Lhande**

Abertitzen zütüt Printze  
Aisa hunkitzen düt bürüz  
Jinkoari parkamentü  
Heben izanen zira dolüz

42

**Amaury de Cazanove**

Kasü-kasü zer da hori  
Nor dira Türk horiek oro  
Gure lagunak poetak  
Apphatiako "Cyrano"

### 3. JELKALDIA

#### Aipu ametsak

35

**Pierra Lhande**

Franxoa Coppeeren antzerki bat  
ari naiz orain idazten.  
Ene ametsa Parisen da  
poeten artean bizitzen.

36

**Amaury de Cazanove**

Ene gaztelura haigu,  
nahi bahaiz igaran goitik.  
Ezagutaraziko dizkiat  
Francis Jammes eta Pierre Loti.

37

**Pierra Lhande**

Iduritzen zait postaria;  
gutun batekin horra da.  
Sentitzen dut orain dela  
superior maiteen uztea.

38

Erraten dute ez naizela  
irakur legean harturik,  
eta seminarioko bortak  
direla enetako zerraturik.

39

So egiozu gutun horri  
zuhain horretan iltzaturik.  
Igortzen diot tiro bat,  
berun larriz kargaturik.

40

**Amaury de Cazanove**

Cyranoren gisa duk  
arraileria onartzen.  
Fierki eta umorez,  
egik zer baituk asmatzen.

41

**Pierra Lhande**

Abertitzen zaitut, printze:  
aise hunkitzen dut buruz.  
Jainkoari barkamendu;  
hemen izanen zara doluz.

42

**Amaury de Cazanove**

Kasu, kasu, zer da hori?  
Nor dira turk horiek oro?  
Gure lagunak, poetak,  
Apphatiako Cyrano.

**haigu:** hator  
**igaran:** igaro

**iduritu:** iruditu  
**horra da:** dator

**superior:** seminarioko buru

**irakur lege:** Eliza Katolikoko  
ordena txikietako bat  
**borta:** ate  
**zerratu:** itxi

**zuhain:** zuhaitz  
**igorri:** bidali

**arraileria:** txantxa  
**fierki:** adorez

**abertitu:** ohartarazi  
**hunkitu:** ukitu

43

**Pierra Lhande**

Madarikatü apezak  
Kentzen ditaie poesia  
Biba musketerrak eta  
Gazkoiniako gazteria

Satan

43

**Pierra Lhande**

Madarikatu apaizak!  
Kentzen didate poesia.  
Biba mosketariak eta  
Gaskoiniako gazteria!

#### 4. JELKALDIA

##### Jesuïta naizateke

44

**Pierra Lhande**

Seminariotik landa  
Ezagütü düt armada  
Jauntsiak urdin eta gorri  
Bena beltz ene marda

45

Sei hilabetez segürrik  
Ene lagün iñoranter  
Erakatsi deiet irakurtzen  
Hor hartü düt hanitx plazer

46

**Pauline Lhande**

Ene semea zer eginen dük  
Orai erreformatürik  
Apez bat nahi nïkek  
Hitarik ikusi heldürik

47

**Victoire d'Uhalt**

Gaztelü hau ez da heben  
Auharren egongia  
Pipa ahotik tzilintzau  
Lastokatzen kabalea

48

Beharko dük zerbait egin  
Ez gasta hire bizia  
Aholkatzen deiat  
Jesüitetan sartzea

49

**Sarremague jesuïta**

Gizon gaztea honki jin  
Jesüsen Konpainian  
Jesüïta heltzen bahaiz  
Ez hizate itzalean

50

**Pierra Lhande**

Heben nüzü züen artean  
Nahigabe pusatürik  
Arreba komentüan hilik  
Ez düt nahi holakorik

51

Zentako behar nuke  
Ene bidetik hürrüntü  
Familiatik berezi  
Eüskal Herria ukatü

#### 4. JELKALDIA

##### Jesuïta naizateke

44

**Pierra Lhande**

Seminariotik landa  
ezagutu dut armada.  
Jantziak urdin eta gorri,  
baina beltz ene marda.

45

Sei hilabetez segurik  
ene lagun ezjakinei  
irakatsi diet irakurtzen.  
Hor hartu dut anitz plazer.

46

**Pauline Lhande**

Ene semea, zer eginen duk  
orain erreformaturik?  
Apaiz bat nahi nïkek  
hitarik ikusi heldurik.

47

**Victoire d'Uhalt**

Gaztelu hau ez da hemen  
alferren egongia.  
Pipa ahotik zilintzan,  
lastokatzen kabala

48

Beharko duk zerbait egin,  
ez gasta hire bizia.  
Aholkatzen diat  
jesuïtetan sartzea.

49

**Sarremague jesuïta**

Gizon gaztea, ongi jin  
Jesusen Konpainian.  
Jesuïta heltzen bahaiz,  
ez haizateke itzalean.

50

**Pierra Lhande**

Hemen naiz zuen artean  
nahigabe pusaturik.  
Arreba komentuan hilik,  
ez dut nahi horrelakorik.

51

Zerendako behar nuke  
ene bidetik urrundü,  
familiatik berezi,  
Euskal Herria ukatu?

**marda:** gorroto**hitarik:** hiregandik

**egongia:** egoitza  
**zilintzan:** zintzilik  
**kabala:** abere, azienda

**jin:** etorri**haizateke:** izango haiz**pusatu:** bultzatu**zerendako:** zergatik

52

**Sarremague jesuita**

Nolaz ez hezake egin  
 Arrebak egin düana  
 Bere bizia eman dü  
 Bokazionez egina

53

**Pierra Lhande**

Fanny zuregatik ezarriko düt  
 Ene arima bakean  
 Jesüita izanen nüzü  
 Ad Majorem Dei gloriam

54

Ilüsiöeen galtzapena  
 Segür bizitzea dago  
 Debalde üzten ametsak  
 Bakearen edireiteko

52

**Sarremague jesuita**

Nolaz ez hezake egin  
 arrebak egin duena?  
 Bere bizia eman du,  
 bokazioz egina.

53

**Pierra Lhande**

Fanny, zuregatik ezarriko dut  
 ene arima bakean.  
 Jesuita izanen naiz,  
 "ad majorem Dei gloriam".

54

Ilusioen galtzapena;  
 segur bizitzea dago.  
 Debalde uzten ametsak,  
 bakearen edireteko.

**galtzapen:** galera**debalde:** alferrik  
**ediren:** aurkitu

## 5. JELKALDIA

### Apaizgoari herra

55

#### Anatole France

Bonaparteren baimenetik  
Aberastü da eliza  
Aita Saintüak ezarten dü  
Ezinagoko baldintza

56

#### Waldeck Rousseau

Kongrekazioneak begista  
Alkartetan denak ezar  
Gure gazteen eskolatzen  
Jesüitarik ez da behar

57

#### Emile Combes

Pentsalari libroek  
Jan dezagüla « apezki »  
Jauzi dadin konkordata  
Kongrekazioneak hareki

58

#### Maurice Allard

Debekatü behar dira  
Kalota eta sotanak  
Errelijioneko bestak  
Prosezio baliosenak

59

#### Jean Jaures

Estatü eta Eliza  
Berezi behar dütügü  
Jentarte kanbiamen bat  
Popülüak xerkatzen dü

60

#### Albert de Mun

Aita Saintüak nahi lüke  
Beste gisaz kirixtigoa  
Züek aldiz züen baitan  
Düzüe egostekoa

61

#### Jean Jaures

Elizaren kontre gira  
Bai ere kirixtigoari  
Ükatzen dü gizon dreta  
Zabal gitean argiari

Guduka. Jalgi aita santu beltza

## 5. JELKALDIA

### Apaizgoari herra

55

#### Anatole France

Bonaparteren baimenetik  
aberastu da eliza.  
Aita santuak ezartzen du  
ezinagoko baldintza.

56

#### Waldeck Rousseau

Kongregazioak begizta.  
Elkartetan denak ezar.  
Gure gazteen eskolatzen  
jesuitarik ez da behar.

57

#### Emile Combes

Pentsalari libroek  
jan dezagula "apaizki".  
Jauzi dadin konkordatua;  
kongregazioak harekin.

58

#### Maurice Allard

Debekatu behar dira  
kalota eta sotanak,  
erlijioeko bestak,  
prosezio baliosenak.

59

#### Jean Jaures

Estatu eta Eliza  
berezi behar ditugu.  
Jentarte kanbiamendu bat  
populuak xerkatzen du.

60

#### Albert de Mun

Aita santuak nahi luke  
beste gisaz kiristigoa.  
Zuek, aldiz, zuen baitan  
düzue egostekoa.

61

#### Jean Jaures

Elizaren kontra gara,  
bai ere kiristigoari.  
Ükatzen du giza eskubidea.  
Zabal gaitezen argiari.

**herra:** gorroto

**begiztatu:** aztertu

**libro:** libre, aske

**kalota:** elizgizon batzuen  
txano berezia  
**balios:** baliotsu

**jendarte:** gizarte  
**kanbiamendu:** aldaketa  
**xerkatu:** bilatu

**kiristigo:** kristautasun

**kiristigoari:** kristautasunaren  
kontra

**62****Aita santu beltza**

Frantziak ohiltzen gütü  
 Batere arrünkürarik gabe  
 Goitzarrenak igaraiten dira  
 Bena Eliza bizi beti ere

**63**

Iheslarien bide bat bada  
 Eta hori jesuitak badaki  
 Berriz gibel ützültzeko  
 Beste xenda bat hobeki

**62****Aita santu beltza**

Frantziak ohiltzen gaitu  
 batere arrangurarik gabe.  
 Goitzarrenak igaraten dira,  
 baina Eliza bizi betiere.

**63**

Iheslarien bide bat bada,  
 eta hori jesuitak badaki.  
 Berriz gibel itzultzeko,  
 beste xenda bat hobeki.

**ohildu:** egotzi, bota**arrangura:** kezka**goitzarren:** bidegabekeria**igaran:** igaro**gibel:** atzera**xenda:** bide

**KANTA III**  
**Aingeruak kantan**

**c1**

Agur sainta erregiña  
Argiaz bero atzerria  
Goresmen ama goihena  
Galbideetan esperantxa

**c2**

Dolümen ikara pezü  
Arimak doi ikus hütza  
Soa entzüna, goxo zaitzü  
Zure izena erri garbia

**KANTA III**  
**Aingeruak kantan**

**c1**

Agur, santa erregina.  
Argiaz, bero atzerria,  
Goresmen, ama goiena.  
Galbideetan, esperantza.

**c2**

Dolumen, ikara pezu,  
arimak doi ikus hutsa.  
Soa, entzuna, gozo zaizkizu.  
Zure izena, irri garbia.

**dolumen:** damu

**pezu:** astun

## 6. JELKALDIA

### Erbeheratzea

64

#### Pauline Lhande

Pierraren gütünak dio  
Ohatü dela Holandan  
Han laket da üdüriko  
Atzo Jersen eta Belgikan

65

#### Valentine Lhande

Nausiek erran deie  
Parti dadin Londresera  
Eüskal popülüaren hantik  
Ikertzeetan barnatzera

66

#### Pauline Lhande

Ezpiritü eta karatera  
Ontsa pentsatzen ikas beza  
Estüdiatzen dü franko aisa  
Greka, latia eta Ingelesa

67

#### Victoire d'Uhalt

Pentsa dezala botoer  
Ützirik poesia eta solaz  
Bere mailan sartüko da  
Azkenekoz mentüraz

68

#### Valentine Lhande

Ez düst uste irus dela  
Ontsa irakurten bada  
Ez düzüea senditzen  
Sorterria ments düala

69

Ürxaintx zombait hazten dütü  
Kaiola baten barnean  
Piper gorria nahi dü  
"Eskualdun" kaseta harekilan

70

#### Pauline Lhande

Hur karruntatü leinetan  
Hartzen dü bere plazera  
Sotana airean eta  
Lerragian alagera

Amak Pierrari kanta

## 6. JELKALDIA

### Erbeheratzea

64

#### Pauline Lhande

Pierraren gutunak dio  
ohatu dela Holandan.  
Han laket da, iduriko.  
Atzo, Jersey eta Belgikan.

65

#### Valentine Lhande

Nagusiek erran diote  
parti dadin Londresera,  
euskal populuaren handik  
ikertzeetan barnatzera.

66

#### Pauline Lhande

Espiritu eta karakterea,  
ontsa pentsatzen ikas beza.  
Estudiatzen du franko aise  
grekoa, latina eta ingelesa.

67

#### Victoire d'Uhalt

Pentsa dezala botoei,  
utzirik poesia eta solas.  
Bere mailan sartuko da,  
azkenekoz, menturaz.

68

#### Valentine Lhande

Ez dut uste uros dela,  
ontsa irakurtzen bada.  
Ez duzuea sentitzen  
sorterria ments duela?

69

Urtxintxa zenbait hazten ditu  
kaiola baten barnean.  
Piper gorria nahi du;  
*Eskualduna* kazeta harekin.

70

#### Pauline Lhande

Ur karroindatu leunetan  
hartzen du bere plazera,  
sotana airean eta  
lerragian alagera.

**ohatu:** kokatu**laket:** gustura**iduriko:** antza**partitu:** abiatu**populuaren:** populuarentzat**ikertze:** ikerketa**barnatu:** ekin, murgildu**aise:** erraz**botoei:** botoei buruz**menturaz:** beharbada**uros:** zorionsu**duzuea:** al duzue**ments:** falta**urtxintxa:** katagorri**kazeta:** aldizkari**karroindatu:** izoztu**lerragia:** patinatzeko toki**alagera:** pozik



**KANTA IV**  
**Errogabetzea**

**d1**

Ene haur maitea  
Lerra jostaketan  
Ipar itxasoan  
Lekü zabalean  
Asma zure aitzinean  
Amerika harroa

**d2**

Lürra, begietarik  
Betikoz galdürrik !  
Emigrant arbasoen  
Hasperen arruntak  
Etsien ez, jakin ezak,  
Lore tristezia baizik !

**d3**

Emigrazioarean  
Mozkin eta kalteek,  
Eginik ere hontarzüna  
Eta herrirat ützültzea,  
Beti izanen da  
Herro gabe izatea !

**KANTA IV**  
**Errogabetzea**

**d1**

Ene haur maitea,  
lerra jostaketan  
Ipar Itsasoan,  
leku zabalean,  
asma zure aitzinean  
Amerika harroa.

**d2**

Lurra begietarik  
betikoz galdurik,  
emigrante arbasoen  
hasperen arruntak  
ez zuen, ez, jakin ezak,  
lore-tristezia baizik!

**d3**

Emigrazioaren  
mozkin eta kalteek,  
eginik ere ondasuna  
eta herrirat itzultzea,  
beti izanen da  
erro gabe izatea!

**itzultze:** itzulera

**7. JELKALDIA****Adioa ama eztiari****71****Johane Lhande**

Ama goizan pausatü da  
 Pio heltzen hiz ehortzera  
 Hil mihisean ezarri gabe  
 Azken poten emaitera

**72****Pierra Lhande**

Ororen gainetik maite nüana  
 Üken düdan ama hona  
 Oritzen zaizt zure penak  
 Bai eta zure imur hona

**73****Marzel Lhande**

Gure penak gomendatuz  
 Zelü eder gorriskari  
 Maidalenatik Zalgize  
 Mires dezagun hobeki

**74****Pierra Lhande**

Zügüneko ütürritik  
 Ülün zeinüa ezagün da  
 Ageri artzain harri xiloak  
 Bagoen artean ardi xenda

**75**

Laidatzen dütüt arbasoak  
 Heben düt ene odola  
 Kokostegitik Saratsagara  
 Miratzen düt ene aria

**76****Valentine Lhande**

Pausa hadi idatzirik  
 Eüskal desterritza  
 Dagün urtean jin gitean  
 Apez ordenatzeala

**7. JELKALDIA****Adioa ama eztiari****71****Johane Lhande**

Ama goizean pausatu da.  
 Pio, heltzen haiz ehortzera,  
 hil-mihisean ezarri gabe  
 azken poten ematera.

**72****Pierra Lhande**

Ororen gainetik maite nuena,  
 ukan dudan ama ona.  
 Oroitzen zaizkit zure penak,  
 bai eta zure umore ona.

**73****Marzel Lhande**

Gure penak gomendatuz  
 zeru eder gorrixkari,  
 Madalenatik Zalgize  
 mirets dezagun hobeki.

**74****Pierra Lhande**

Zuguneko iturritik  
 ilun-zeinua ezagun da.  
 Ageri artzain-haitzuloak,  
 pagoen artean ardi-xenda.

**75**

Laudatzen ditut arbasoak.  
 Hemen dut ene odola.  
 Kokostegitik Saratsagara  
 miratzen dut ene aria.

**76****Valentine Lhande**

Pausa hadi idatzirik  
 euskal deserritza,  
 daugin urtean jin gaitezen  
 apaiz ordenatzera.

**pausatu:** hil  
**mihise:** izara  
**ezarri gabe:** ezarri aurretik  
**pot:** musu

**ilun-zeinu:** arratseko  
 kanpai-hots  
**xenda:** bide

**aria:** leinu, arraza

**pausatu:** jarri, ipini

**daugin:** datorren  
**jin:** etorri

## KANTA V Ama maitea

### e1

Ama maitea, zer sofrimena  
haur batetik hürrüntzea !  
Potak emanik bata-besteari,  
nigarretan partitzea,  
Nola nezake ezin ikusi  
zure begien bustatzea,  
Orai asmatzen düt, itzaltzen dela  
igaran denbora goxoa.

### e2

Zure nigarrak, ama maitea,  
ene bihotzak ez entzün,  
Karesü goxo eztiinak,  
nitan hazkürri zütützün,  
Badakit untsa, ez düzü üken  
ene ganik irustarzün,  
Xori ezkapakoraren gisa,  
habia ützirik joan nüdüzün.

### e3

Orhitzapenak iratzartzen dira  
kantüz ari nizan bezala,  
Etxe hortako goxotarzünak  
bihotza hunki zeitala,  
Haur nintzalarik, erritto batek  
zion irusena nintzala,  
Mirail argiak, beti danik dü,  
barreatü gaüzen itzala.

### e4

Gogoa ülhün, pentsamentükaz,  
zü ama egoileari,  
Zü aldiz oso penetan zira  
seme partizaleari.  
Nola hein hortan agitü gira,  
bihotz minaren pitzgarri?  
Ama maitea, zure aterbean,  
üken dezagün batzarri !

Satan

## KANTA V Ama maitea

### e1

Ama maitea, zer sufrimena  
haur batetik urruntzea!  
Potak emanik bata besteari,  
nigarretan partitzea.  
Nola nezake ezin ikusi  
zure begien bustitzea?  
Orain asmatzen dut itzaltzen dela  
igaran denbora gozua.

### e2

Zure negarrak, ama maitea,  
ene bihotzak ez entzun.  
Karesa gozo eztiinak,  
nitan hazkurri ziren.  
Badakit ontsa: ez duzu ukan  
eneganik urostasun.  
Txori eskapakoraren gisa,  
habia utzirik joan nintzen.

### e3

Oroitzapenak iratzartzen dira  
kantuz ari naizen bezala,  
etxe honetako gozotasunak  
bihotza hunkitu zidala.  
Haur nintzalarik, irritto batek  
zioen urosena nintzela.  
Mirail argiak betidanik du  
barreiatu gauzen itzala.

### e4

Gogoa ilun, pentsamenduekin,  
zu ama egoileari.  
Zu, aldiz, oso penetan zara,  
seme partizaleari.  
Nola hein horretan agitu gara,  
bihotz-minaren pitzgarri?  
Ama maitea, zure aterpean,  
ukan dezagun batzarri!

**pot:** musu  
**partitu:** abiatu

**igaran:** igaro(tako)

**karesa:** laztan  
**hazkurri:** elikagai  
**ontsa:** ongi  
**urostasun:** zorion  
**eskapakor:** iheslari

**hunkitu:** ukitu  
**irritto:** irribarretxo  
**uros:** zoriontsu  
**mirail:** ispilu

**agitu:** gertatu

**batzarri:** abegi

## 8. JELKALDIA

### Itsaspikak

77

#### Angela aleman erizaina

Alemania gaixki da  
Jentea gosez dabila  
Kaizera kasik zedi da  
Foch madarika dadila

78

#### Ginette Blazzy

Kaska püntotxek behar düzüe  
Arrunt ürrerentü masakrea  
Aspaldian ordü beita  
Üztea züen ertzokeria

79

#### Suzanne Berlioz

Hainbeste hil ta kolpatü  
Zonbat zanko beso moztü  
Orai bakea behar dügü  
Behar düzüe hatüa hortü

80

#### Olga aleman erizaina

Ingelesak eta frantsesak  
Aitzina doatza bürrataz  
Ludendorffek\* galdüko dü  
Gerlarik hola ezin irabaz

### Guduka

81

#### Marie-louise Costesèque

Itsaspikak Marseillala  
Ützül gitean jakiteko  
Pierra Lhande erizaina  
Han dügünez kausitüko

82

#### Ginette Blazzy

Erizain zen gureki  
Izkiribaño famatüa  
Gizon horrek nik uste  
Badüke izate handia

83

#### Maguy Langlois

Nonbaiko arroila beltzetan  
Omen hil zaio anaia  
Clémenceauk etxekitzen dü  
Gerla madarikatüa !

## 8. JELKALDIA

### Itsaspikak

77

#### Angela aleman erizaina

Alemania gaizki da.  
Jentea gosez dabil.  
Kaizerra kasik zeditu da.  
Foch madarika dadila!

78

#### Ginette Blazzy

Kasko puntadunek behar duzue  
arrunt urrendu masakrea,  
aspaldian ordu baita  
uztea zuen ertzokeria.

79

#### Suzanne Berlioz

Hainbeste hil eta kolpatu,  
zenbat zango-beso moztu!  
Orain bakea behar dugu.  
Behar duzue hatua ondu.

80

#### Olga aleman erizaina

Ingelesak eta frantsesak  
aitzina doaz burataz.  
Ludendorffek galduko du.  
Gerlarik horrela ezin irabaz.

### Guduka

81

#### Marie-louise Costesèque

Itsas pikak, Marseillara  
itzul gaitezen jakiteko  
Pierra Lhande erizaina  
han dugunetz kausituko.

82

#### Ginette Blazzy

Erizain zen gurekin;  
eskribau famatua.  
Gizon horrek, nik uste,  
baduke izate handia.

83

#### Maguy Langlois

Nonbaiteko arroila beltzetan  
omen hil zaio anaia.  
Clémenceauk atxikitzen du  
gerla madarikatua!

zeditu: amore eman

arrunt: berehala

ertzokeria: erokeria

kolpatu: zauritu

hatu: fardel

ondu: prestatu

burata: topekada, talka

itsas pika: kaio

kausitu: aurkitu

duke: izango du

## 9. JELKALDIA

### Euskalzain idazle

84

#### Pierra Lhande

Gure mintzaje zaharra  
Suharri denborakoa  
Ez ezagüna izanagatik  
Beita paregabekoa

85

#### Resurreccion Maria Azkue

Mintza gitean lotsa gabe  
Euskaraz, Euskal Herrian  
Sor dadin Akademia  
Pierra jin zite gurekin

86

#### Pierra Lhande

Hiztegi bat behar dügü  
Bai Xiberoarentako  
Laffitte eta Beauchesne  
Züekin date aisago

87

#### Julio Urkixo

Euskal erakustoki bat  
Altxatzen düzüe Tolosan  
Anaidi katolikoa  
Izanez ondo-ondoan

88

#### Pierra Lhande

Ikastegi katolikoak  
Ez naü batere lotsatzen  
Erromatik manüak dütüt  
Haier nüzü jarraitzen

89

Behar düt ene denbora  
Idazlanari eskentü  
Eta audela ez seküla  
Politikari pentsatü

90

#### Julio Urkixo

Madrilek emaiten deizü  
Bere konfiantxa oro  
Akademiako sosa eta  
Zer egin ziniro haboro

91

#### Pierra Lhande

Bihar banoa Barkoxera  
Arrapitzaraztera  
Literatüran izan den  
Olerkari hunkigarria

## 9. JELKALDIA

### Euskalzain idazle

84

#### Pierra Lhande

Gure mintzaira zaharra,  
suharri denborakoa,  
ezezaguna izanagatik  
baita paregabekoa.

85

#### Resurreccion Maria Azkue

Mintza gaitezen lotsa gabe  
euskaraz Euskal Herrian.  
Sor dadin akademia,  
Pierra, jin zaitetz gurekin.

86

#### Pierra Lhande

Hiztegi bat behar dugu,  
bai, Xiberoarendako.  
Laffitte eta Beauchesne,  
zuekin dateke aiseago.

87

#### Julio Urkixo

Euskal irakastoki bat  
altxatzen duzue Tolosan,  
anaidi katolikoa  
izanez ondo-ondoan.

88

#### Pierra Lhande

Ikastegi katolikoak  
ez nau batere lotsatzen.  
Erromatik manuak ditut.  
Haiei natzaie jarraitzen.

89

Behar diot ene denbora  
idazlanari eskaini,  
eta areago ez sekula  
politikari pentsatu.

90

#### Julio Urkixo

Madrilek ematen dizu  
bere konfiantza oro.  
Akademiako sosa eta.  
Zer egin zeniro haboro?

91

#### Pierra Lhande

Bihar banoa Barkoxera  
berpitzaraztera  
literaturan izan den  
olerkari hunkigarria.

jin: etorri

dateke: izango da

lotsatu: beldurtu  
manu: agindu

politikari: politikaz

zeniro: zenezake  
haboro: gehiago

berpitzarazi: berpiztu

**92**

Etxahunen kokikeriak  
Isurten dira gütara  
Amodiozko ametsak  
Pena eta nigarrak

Zazpi probintzietako dantza

**92**

Etxahunen kokinkeriak  
isurtzen dira gutara:  
amodiozko ametsak,  
pena eta negarrak.

**kokinkeria:** zirikada

**SATANAK****93****Satan**

Gaüzak oro kausitzen  
Pierra zalgiztarrak  
Hori behar diagü  
Ahalaz nonbait burratü

**94****Beeltzebub**

Hede xuriak behar ditiagü  
Animalki beroarazi  
Eküras dezen mügan  
Eta gibel ützü l erazi

**95****Bulgifer**

Espainako bortizkeria  
Gogor eükaldünentako  
Ihontik ere ez dükek  
Han sartzen ahal haboro

**96****Satan**

Ezarriko diagü "muxar" bat  
Emaiten dütin kursoez  
Gaizki iküsirik izan dadin  
Gobernü eta Vatikanaz

**97****Beeltzebub**

Obedientzia botüak  
Eta praube izatekoak  
Harek dütü debekatürrik  
Pipatze-ta-ihizeka

**98****Satan**

Bai behar diagü apaltü  
lürra hunki artino  
xiberotarrak ez dik  
ürzokako züzenik

**99****Denak**

Kantatüko deiagü  
Satanen kantorea  
Berak haüta dezan  
Plazer düan ahaidea

**SATANAK****93****Satan**

Gauzak oro kausitzen  
Pierra zalgiztarrak.  
Hori behar diagu  
ahalaz nonbait kolpekatu.

**94****Beeltzebub**

Hedexuriak behar ditiagu  
alimaleki beroarazi,  
ekuraz dezaten mugan,  
eta gibel itzularazi.

**95****Bulgifer**

Espainako bortizkeria,  
gogor euskaldunendako.  
Inondik ere ez dukek  
han sartzen ahal haboro.

**96****Satan**

Ezarriko diagu muxar bat  
emaiten dituen kursoez,  
gaizki ikusirik izan dadin  
gobernu eta Vatikanoz.

**97****Beeltzebub**

Obedientzia botuak  
eta pobre izatekoak.  
Hark ditu debekaturik  
pipatze eta ihizia.

**98****Satan**

Bai, behar diagu apaldu  
lürra hunki artio.  
Xiberotarrak ez dik  
usotarako zuzenik.

**99****Denak**

Kantatuko diagu  
satanen kantorea,  
berak hauta dezan  
plazer duan ahairea.

**kausitu:** lortu**ahalaz:** ahal den neurrian

**hedexuri:** jendarme  
**alimaleki:** izugarri, guztiz  
**ekurazazi:** geldiarazi  
**gibel:** atzera

**dukek:** izango duk  
**haboro:** gehiago

**muxar:** sator, espioi

**pipatu:** tabakoa erre  
**ihizi:** ehiza

**hunki:** ukitu  
**artio:** arte  
**zuzen:** eskubide

**kantore:** abesti**ahaire:** doinu

## 10. JELKALDIA

### Gabeziari oldartzea

100

#### Dubois apezpikua

Zük egin idazkiak  
"Jinkoa tzarpakarien artean"  
Sorrarazi dü orotan  
Lazgarriko lagüngo

101

#### Pierra Lhande

Herri üngürünek oro  
Dira praubez atetürik  
Kaoila txarretan dira  
Zorteak gaixki erabilirik

102

Gaüaz kurritzen dira  
Zikinontzietan txerkatzeko  
Aberatsek ützi düenez  
Zerbait honik bizitzeko

103

Saldoa handitzen ari da  
Eta karreiatzen malezia  
Behar dügü güne horietan  
Eraiki etxebizitza

104

#### Dubois apezpikua

Norek ekürraraz litiro  
Pariseko borta sargian  
Hainbeste gose jangabe  
Hobeki izan nahian

105

#### Pierra Lhande

Bortitzenak hortxe dira  
Herri üngürüne gorrietan  
Bolxevismoa gogoan  
Prest sartzeko iraultzan

106

#### Ferdinand Foch marexala

Nazione 'ta elizak  
Nahiküntea badügü  
Miseriaren eretzeko  
Gerla garaitüko dügü

107

Aita Lhande zure hitzak  
Dira bihotz altxazale  
Nizan soldaduak beharradü  
Nik ere kobesazale

## 10. JELKALDIA

### Gabeziari oldartzea

100

#### Dubois apezpikua

Zuk egin idazkiak,  
"Jainkoa zarpakarien artean",  
sorrarazi du orotan  
lazgarriko lagungoa.

101

#### Pierra Lhande

Herri inguruneak oro  
dira pobrez ateturik.  
Kaholla txarretan dira,  
zorteak gaizki erabilirik.

102

Gauaz korritzen dira  
zikinontzietan xerkatzeko  
abertsek utzi duenez  
zerbait onik bizitzeko.

103

Saldoa handitzen ari da,  
eta garraiatzen malezia.  
Behar dugu güne horietan  
eraiki etxebizitza.

104

#### Dubois apezpikua

Nork ekuraraz litiro  
Pariseko borta-sargian  
hainbeste gose jangabe  
hobeki izan nahian.

105

#### Pierra Lhande

Bortitzenak hortxe dira,  
herri ingurune gorrietan,  
boltxebismoa gogoan,  
prest sartzeko iraultzan.

106

#### Ferdinand Foch marexala

Nazio eta elizak  
nahikunde badugu,  
miseriaren eretzeko  
gerla garaituko dugu

107

Aita Lhande, zure hitzak  
dira bihotz altxatzaile.  
Naizen soldaduak beharra du.  
Nik ere, konfesatzaile.

**zarpakari:** zatarketari  
**lazgarriko:** oso handi  
**lagungo:** laguntza

**atetu:** pilatu  
**kaholla:** hornigai

**korritu:** ibili  
**zikinontzi:** zakarrontzi

**saldo:** talde, multzo

**ekurarazi:** geldiarazi  
**litiro:** litzake  
**borta:** ate  
**sargia:** sarrera

**eretzeko:** aurkako



108

**Dubois apezpikua**

Peredikü eginendüzü Notre Dame-n  
Beethovenen ürte buriaren  
Eta izentatzen zütüt  
Peredikazale iratian

108

**Dubois apezpikua**

Prediku eginen duzu Notre Damen,  
Beethovenen urteburuaren.  
Eta izendatzen zaitut  
predikatzaile irratian.

**urteburuaren:**  
urteburuarentzat

## 11. JELKALDIA

### Mikroaren nagusi

109

**Paul Lesourd**

Zü zira lehen aldikoz  
Irratian peredikazale  
Igantze oroz badüzü  
Jente hanitx behazale

110

**Pierra Lhande**

Egite hunkigarria  
Oran ta Berlinetik behatürik  
Bena ene praube maiteer  
Mintzo niz lehen-lehenik

111

**Suzanne Malard**

Ororek entzütten zütüe  
Hegatzen gainetik mintzo  
Zure botz emankorrek  
Badüa ote ondorio

112

**Pierra Lhande**

Ene esparantzaren gainetik  
Aisago asmatzen dü  
Eritarzünak hunkirik dena  
Edo langabe bada

113

Larrialdi handi hontan  
orotan hain abre dena  
Igotzen deitae sosa  
Ene obren hanitx gaüza

114

Hegatz itsaso gainetik  
Egin dütüt perediküak  
Desiratzen dütüt horrik  
Ez direla izan debaldeküak

## 11. JELKALDIA

### Mikroaren nagusi

109

**Paul Lesourd**

Zu zara lehen aldikoz  
irratian predikatzaile.  
Igantze oroz baduzu  
jende anitz behatzaile.

110

**Pierra Lhande**

Egite hunkigarria  
Oran eta Berlinetik behaturik.  
Baina ene pobre maiteei  
mintzo natzaie lehen-lehenik.

111

**Suzanne Malard**

Oroek entzuten zaituzte,  
hegatzen gainetik mintzo.  
Zure boz emankorrek  
badua ote ondorio?

112

**Pierra Lhande**

Ene esparantzaren gainetik.  
Aiseago asmatzen du  
eritasunak hunkirik denak  
edo langabe bada.

113

Larrialdi handi honetan,  
orotan hain abere dena,  
igortzen didate sosa,  
ene obren anitz gauza.

114

Hegatz-itsaso gainetik  
egin ditut predikuak.  
Desiratzen dut horiek  
ez direla izan debaldekoak.

**behatzaile:** entzule

**behatu:** entzun

**hegatz:** teilatu

**badua:** ba al du

**hunkitu:** ukitu

**abere:** gordin, anker

**igorri:** bidali

**sos:** diru

**obren:** obrentzat

**hegatz:** teilatu

**12. JELKALDIA****Hedaldi gotorlekuetan****115****Bibi-mal-lotie**

Ondarkinen ikertzea  
 Ez da manera hoberena  
 Aberatsek ützi düenez  
 Gosea elkitzen düana

**116****Julot**

Adiskideak orai aski  
 Gizadiaren salbatzeko  
 Elki gitean itzaletik  
 Guri ere sos gehiago

**117****Mame Ugène**

Zer joaiten zaüt gizadia !  
 Taigabe hedexuriak  
 Beti ondolik dütügü  
 Bazter hortik hünzkeriak !

**118****Txitxatera**

Heben badügü bihotz hon bat  
 Segür igande ororez  
 Sentora hau betetzen dü  
 Nik uste hau dela apez

**119**

Hur hotza isurten dü  
 Haur ttipien bürüala  
 Hori aski da igorteko  
 Gauxo horien linboetara

**120****Julot**

Beren gazte bilgünetan  
 Itotzen düe iraultza  
 Jente xehearen biltzen  
 Gain-gainetik ari dira

**121****Xicoré**

Apez bat bada horien artean  
 Pierra Lhande deitzen dena  
 Bazterrak iharrausten dütü  
 Irratietan mintzo beita

**122****Julot**

Gaur kümitatzen zütüet  
 Ene ostatü berriala  
 Kantatüko dügü ororek  
 Gustüan internazionala

**12. JELKALDIA****Hedaldi gotorlekuetan****115****Bibi-mal-lotie**

Hondakinen ikertzea  
 ez da manera hoberena,  
 aberatsek utzi dutenez  
 gosea ilkitzen duena.

**116****Julot**

Adiskideak, orain aski!  
 Gizadiaren salbatzeko  
 ilki gaitezen itzaletik.  
 Guri ere sos gehiago.

**117****Mame Ugène**

Zer joaten zait, gizadia!  
 Tai gabe hedexuriak  
 beti ondolik ditugu.  
 Bazter hortik honzkeriak!

**118****Txitxatera**

Hemen badugu bihotz on bat.  
 Segur igande oroez  
 kapera hau betetzen du.  
 Nik uste hau dela apaiz.

**119**

Ur hotza isurtzen du  
 haur ttipien burura.  
 Hori aski da igortzeko  
 gaixo horien linboetara.

**120****Julot**

Beren gazte bilgünetan  
 itotzen dute iraultza.  
 Jente xehearen biltzen,  
 gain-gainetik ari dira.

**121****Xicoré**

Apaiz bat bada horien artean,  
 Pierra Lhande deitzen dena.  
 Bazterrak inarosten ditu,  
 irratieta mintzo baita.

**122****Julot**

Gaur gomitatzen zaituztet  
 ene ostatu berrira.  
 Kantatuko dugu ororek  
 gustuan Internazionala.

**utzi dutenez:** utzi dutenetik  
**ilki:** kendu

**ilki:** irten  
**sos:** diru

**tai gabe:** gelditu gabe  
**hedexuri:** jendarme  
**honzkeria:** lelokeria

**igorri:** bidali

**inarrosi:** astindu

**gomitatu:** gonbidatu

**KANTA VI**  
**Internazionala**

**f1**

Bil gitean borrokan  
Garrait eta bihar  
Internazionalean  
Heriak ditean jar

Guduka

**123**

**Paille de fer**

Komünista 'ta kirixtiek  
Ützi dezagün aharra  
Ororek heben badüğü  
Bakearen beharra

**124**

Gure apezari esker  
Ez gira baztertürik  
Andere Mouisako,  
Parropian honartürik

**KANTA VI**  
**Internazionala**

**f1**

Bil gaitezen borrokan.  
Garaitu, eta bihar  
Internazionalean  
Herriak daitezen jar.

**123**

**Paille de fer**

Komunista eta kiristiek  
utzi dezagun aharra.  
Oroek hemen badugu  
bakearen beharra.

**124**

Gure apaizari esker  
ez gara bazterturik;  
Andre Maria Nekeziako  
parrokian onarturik.

**kiristi:** kristau  
**aharra:** liskar

**KANTA VII**  
**Nekaziaren kantorea**

**g1**

Zoin eijer gure katedrala  
 Kartoinez dü zeinütegia  
 Lohi bustian dütü lauzak  
 Zübü petan bildürük taulak  
 Ez dü mitrailik gure elizak  
 Izena dona Maia nekezia

**g2**

Hor edireiten ixiltarzüna  
 Argiak, müsikak, loreak  
 Guretzat aberastarzüna  
 Gure argidüra bakarrak !  
 Gü praueak, süsmagarriak  
 Heben baizik da errespetüa

**g3**

Frankotan pezü da bihotza  
 Noiz zaizüen pizten oldara  
 Hemen da pausatzen haxea  
 Nigarrek ezti gaixtokeria  
 Hots, gü sos gabekuen da  
 Eliza hau gure hontarzüna

Satan

**KANTA VII**  
**Nekaziaren kantorea**

**g1**

Zein eder gure katedrala,  
 kartoiz du zeinütegia.  
 Lohi bustian ditu lauzak,  
 zubipean bildurik taulak.  
 Ez du beiraterik gure elizak.  
 Izena, Dona Maia Nekezia.

**g2**

Hor edireten isiltasuna.  
 Argiak, musikak, loreak,  
 guretzat aberastasuna.  
 Gure argidura bakarrak!  
 Gu pobraek, susmagarriak.  
 Hemen baizik da errespetua.

**g3**

Frankotan pezu da bihotza.  
 Noiz zaizuen pizten oldarra,  
 hemen da pausatzen haxea.  
 Negarrek ez dute gaixtokeria.  
 Hots, gu sos gabekoen da.  
 Eliza hau, gure ondasuna.

**zeinutegi:** kanpandorre

**ediren:** aurkitu

**baizik:** soilik

**pezu:** astun

**haxe:** zama

**sos gabekoen:**  
 diru gabekoentzat

### 13. JELKALDIA

#### Bi gerlen arteko izarra

125

**Verdier apezpikua**

Pierra Lhande osoki da  
Kardinalaren lankietan  
Sos bildua ezarten dü  
Eliza 'ta ikastegietan

126

**Maurice Bastian**

Anbazadoren artean  
"Société des Nations" delakoan  
Herri arteko züzenbidean  
Gizona dago peredikian

127

**Georges Lecomte**

Frantziako Akademian  
Saristatü deiogü obra  
Kristo herri bazterrean  
Nola gizona ez ohora

128

**Suzanne Malard**

Zer nahi amiazale  
Jauzten zaitzo gizon horri  
Eta emazte güziak  
Ertxoturik dütü ondotik

129

Jeiki zite oihüz ari da  
Mündüa izan dadin hobe  
Konzientziak kanbiatzen  
Mikroan elestan trebe

130

**Lyautey marexala**

Mintzaldiak irratian  
Gobernüak debekatzen  
Horregatik behar dü't nik  
Hasi gogor borrokatzen

131

Aitzina mintzatü beita  
Luxemburgek'irratian  
Laster entzünen dügü berriz  
Parisekoan ber gisan

### 13. JELKALDIA

#### Bi gerlen arteko izarra

125

**Verdier apezpikua**

Pierra Lhande osoki da  
kardinalaren langietan.  
Sos bildua ezartzen du  
eliza eta ikastegietan.

126

**Maurice Bastian**

Enbazadoreen artean,  
"Société des Nations" delakoan,  
herri arteko zuzenbidean,  
gizona dago predikuan.

127

**Georges Lecomte**

Frantziako Akademian  
sariztatu diogu obra:  
"Kristo herri bazterrean".  
Nola gizona ez ohora!

128

**Suzanne Malard**

Zernahi amiratzaille  
jauzten zaizkio gizon horri,  
eta emazte guziak  
ertzoturik ditu ondotik.

129

«Jaiki zaitez», oihuz ari da,  
«mundua izan dadin hobe».  
Konzientziak kanbiatzen,  
mikroan elestan trebe.

130

**Lyautey marexala**

Mintzaldiak irratian  
gubernuak debekatzen.  
Horregatik behar dut nik  
hasi gogor borrokatzen.

131

Aitzina mintzatu baita  
Luxenburgoko irratian,  
laster entzunen dugu berriz  
Parisekoan ber gisan.

**langia:** lanleku  
**sos:** diru

**prediku:** hitzaldi**sariztatu:** saritu

**amiratzaille:** miresle  
**jauzi:** salto egin

**ertzotu:** erotu, zoratu

**mikro:** mikrofono  
**elesta:** hizketa

**aitzina:** aurretik

**14. JELKALDIA**  
**Eragile Hego Ameriketari**

**132**

**Consuelo Suncin**

Aita zure herritar bat  
 Buenos Airesen düt partü  
 Saint Exupéryk heben  
 Nahi nizü esposatü

**133**

**Pierra Lhande**

Jakitate gabe izatez  
 Ezkontzeko aferetan  
 Nik aholkatzen deizüt halere  
 Galto hori honartzea

**134**

**Consuelo Suncin**

Don Pedro jarraikiko düt  
 Zük eman aholküa  
 Irratia, mintzaldiak  
 Hain beitzira ahaldüna

**135**

**Raoul Follereau**

Abilki eta eztiki  
 Koraje' eman deiezü  
 Argentinako praubeak  
 Zure alde ezarri dütüzü

**136**

**Pierra Lhande**

Gezurra da erraitea  
 Dohatsü dela praubea  
 Praubetarzünak ez düa  
 Ekarten zorigaitza

**137**

**Madalena Jauregiberri**

Xiberotarren herexetan  
 Egin düzü bidajea  
 Zure heben ikustea  
 Plazer bat da, botzik gira

**138**

**Pierra Lhande**

Ohoratü behar dütügü  
 Euskaldünak bereziki  
 Geografia berri bat  
 Emaiten dü herriari

**139**

Mitralüsak entzütén dütüt !  
 Herriak Irigoien kentü !  
 Oi gaixo Argentina !  
 Jentea süstat Uriburu !

**14. JELKALDIA**  
**Eragile Hego Ameriketari**

**132**

**Consuelo Suncin**

Aita, zure herritar bat  
 Buenos Airesen dut parekatu.  
 Saint Exupéryk hemen  
 nahi nau esposatu.

**133**

**Pierra Lhande**

Jakitate gabe izatez  
 ezkontzeko aferetan,  
 nik aholkatzen dizut, halere,  
 galto hori onartzea.

**134**

**Consuelo Suncin**

Don Pedro, jarraikiko dut  
 zuk eman aholkua,  
 irratia... mintzaldiak...  
 hain baitzara ahalduna.

**135**

**Raoul Follereau**

Abilki eta eztiki,  
 kuraia eman diezu.  
 Argentinako pobreak  
 zure alde ezarri dituzu.

**136**

**Pierra Lhande**

Gezurra da erratea  
 dohatsu dela pobrea.  
 Pobretasunak ez dua  
 ekartzen zorigaitza?

**137**

**Madalena Jauregiberri**

Xiberotarren herexetan  
 egin duzu bidaia.  
 Zure hemen ikustea  
 plazer bat da; pozik gara.

**138**

**Pierra Lhande**

Ohoratu behar ditugu  
 euskaldunak bereziki.  
 Geografia berri bat  
 ematen dio herriari.

**139**

Metrailadoreak entzuten ditut!  
 Herriak Irigoien kendu!  
 Oi, gaixo Argentina!  
 Jentea sustatu, Uriburu!

galto: eske

kuraia: adore, kemen

dua: al du

herexa: aztarna, arrasto

**140**

**Madalena Jauregiberri**

Arrunt Uruguayala  
Goatzen ontziaren hartzera  
Han beita segur haidürü  
Zure amaren familia

**141**

**Pierra Lhande**

Badüt ere hitzordü bat  
Ahazten ahal ez düdana  
Pariseko irratian  
Massilia itsasontzian

**140**

**Madalena Jauregiberri**

Arrunt Uruguaira  
goazen ontziaren hartzera,  
han baita segur haiduru  
zure amaren familia.

**141**

**Pierra Lhande**

Badut ere hitzordu bat,  
ahazten ahal ez dudana:  
Pariseko irratian,  
Massilia itsasontzian.

**arrunt:** berehala

**haiduru:** zain



## 15. JELKALDIA

## KANTA VIII

## Xiberotar artzainak Argentinan

## h1

Hebentik asmatzen da  
Orhi püntako bortüa,  
Eta haibe hortarik  
ageri da beste aldea.

## h2

Orhitzzen zaikü noiztenka  
larrazken aize azkarra  
Basabürüko lanhuetan  
lazgarriko tzintzarrada!

## h Errepika

Kabalez fundi larre zabala,  
Zinkürkaz estanciatik ezagün da  
Altxatzen sor-leküko kantorea,  
Somos los gauchos de la pampa!

## h3

Ametsetan gogoan dügü  
mandozaina beti kargan,  
Lotsarik gabe partitzen,  
gaüaz, beti kontrebandan.

## h4

Eta orai nun dütügü  
maskaradak'ta pasterala,  
Mus partidak, gezür bide,  
artzainekin piperrada.

## h5

Xiberotik hürrün erozgora,  
Beti Euskaldün batzen gira,  
Ükenik ere herriko mengoa,  
*Somos los gauchos de la pampa!*

Satan

## 15. JELKALDIA

## KANTA VIII

## Xiberotar artzainak Argentinan

## h1

Hemendik asmatzen da  
Orhi puntako bortua,  
eta haizpe horretarik  
ageri da beste aldea.

## h2

Oroitzen zaigu noiztenka  
larrazken haize azkarra,  
Basaburuko lainoetan  
lazgarriko zintzarrada!

## h Errepika

Kabalaz fundi larre zabala.  
Zinkurkaz, estanciatik ezagun da.  
Altxatzen sorlekuko kantorea:  
"Somos los gauchos de la pampa".

## h3

Ametsetan, gogoan dugu  
mandazaina beti kargan.  
Lotsarik gabe partitzen  
gauaz, beti kontrabandoan.

## h4

Eta orain non ditugu  
maskaradak eta pasterala,  
mus partidak —gezur-bide—,  
artzainekin piperrada?

## h5

Xiberotik urrun, erroz gora.  
Beti euskaldunak batzen gara,  
ukanik ere herriko mengoa,  
"Somos los gauchos de la pampa".

**bortu:** mendi**noiztenka:** noizbehinka  
**larrazken:** udazken**zintzarrada:** zintzarri-hots**kabala:** abere  
**funditu:** bete, josi  
**zinkurka:** zinkurin, intziri**lotsa:** beldun  
**partitu:** abiatu**erroz gora:** hankaz gora**mengoa:** behar, falta

**16. JELKALDIA****Koloniaren hedatzailea Madagaskarren****142****Soafara**

Honara heltü beitzira  
 Karroz, mandoz edo hoinez  
 Gozatü isla gorria  
 Amiaragari ederrez

**143**

Güne hontako jenteak  
 Kolono eta lekukoak  
 Oro kürütatü dütüzü  
 Artategiak bisitatü

**144****Pierra Lhande**

Segür xedea hau düzü  
 Gizon ororer behatzea  
 Errelijione edo politikan  
 Xüxentarzün ekarte

**145****Fanja**

Beztimentü ederrik  
 Ez düt üken praubegiz  
 Bena ene haurra otoi  
 Benedika ezazü berriz

**146****Pierra Lhande**

Zure jauntsiekila  
 Ikusten zütüt ederra  
 Benedikatzen zütüet  
 Zü eta zure haurra

**147****Fanjatiana**

Apo armatü salsa bat  
 Prestatü deizügü  
 Hebenko janaria beita  
 Otoi txesta ezazü

**148****Pierra Lhande**

Zer da pasto urdin hori ?  
 Barnen zanko eta büztan  
 Tripak deizt iharrausten  
 Eta hortarik beharko jan !

**149**

Zelüko Aita Hona  
 Ez nezazü ützerterera  
 Ez nüan uste banükeala  
 Holako jan beharra

**16. JELKALDIA****Koloniaren hedatzailea Madagaskarren****142****Soafara**

Hona heldu baitzara  
 karroz, mandoz edo oinez,  
 gozatu Irla Gorria,  
 amiaragari ederrez.

**143**

Gune honetako jendeak,  
 kolono eta lekukoak,  
 oro gurutzatu dituzu.  
 Artategiak bisitatu.

**144****Pierra Lhande**

Segur xedea hau duzu:  
 gizon oroei behatzea,  
 erlijio edo politikan  
 zuzentasuna ekartzea.

**145****Fanja**

Beztimentu ederrik  
 ez dut ukan pobreegiz,  
 baina ene haurra, otoi,  
 benedika ezazu berriz.

**146****Pierra Lhande**

Zure jantziekin  
 ikusten zaitut ederra.  
 Benedikatzen zaituztet  
 zu eta zure haurra.

**147****Fanjatiana**

Apoarmatu saltsa bat  
 prestatu dizugu,  
 hemengo janaria baita.  
 Otoi, dasta ezazu.

**148****Pierra Lhande**

Zer da pasta urdin hori?  
 Barnen, zango eta buztan.  
 Tripak dizkit inarosten,  
 eta horretarik beharko jan!

**149**

Zeruko Aita ona,  
 ez nazazu utz erortzera.  
 Ez nuen uste banukeela  
 honelako jan beharra.

**Irla Gorria:** Madagaskar  
**amiaragari:** ikusgarri

**gurutzatu:** bidean aurkitu  
**artategi:** ospitale

**beztimentu:** jantzi, arropa

**apoarmatu:** dortoka

**barnen:** barruki, errai  
**inarrosi:** astindu

**150**

Behar ere euskaldüna niz  
Eta maite piper gorria  
Horrek ontsa lagüntüko naü  
Gaintitzen plat greugarria

**150**

Behar ere, euskalduna naiz,  
eta maite piper gorria.  
Horrek ontsa lagunduko nau  
gaintitzen plat nazkagarria.

**behar ere:** zorionez

**plat:** plater

**17. JELKALDIA****India, handitasun eta urrikari****151****Indiar ofiziala**

Hüllant zite honaxe  
 Ez zira arauz Ghandi  
 Ager etzatzü paperak  
 Omen iraultzale handi

**152****Indiar polizia**

Azkenekoz hartü dügü  
 Sar dezagün presontegian  
 Ingelesek nahi bezala  
 Gük behar dügü hala egin

**153****Pierra Lhande**

Ene izena da Lhande  
 Ez niz batere deitzen Ghandi  
 Errotik nüzü eüskaldüna  
 LHANDE nizala konpreni

**154**

Otoi eman paper horik  
 Ützi nezazüe joaitera  
 Presondegitik heltü niz  
 Doietarik ezkapatzera

**155****Denek**

Damürik ez beitzira Gandhi  
 Parka jauna oker gira  
 Txerka dezagün hürünago  
 Gure independentista

**156****Pierra Lhande**

Bidaje einhagarria  
 Indiako erresuman  
 Oro Jinko seme dira  
 Brahmesen kartiel hontan

**157****Aita van Spreeken**

Seküla ez dügü eginen  
 Jente horietarik kirixti  
 Jesüitak hügüntürik  
 Ezin hunkietzaz axolutzen

**158****Pierra Lhande**

Gure misionistak dira  
 Beti libratzen laneko  
 Haien unibersitateek  
 Badüe ikasle franko

**17. JELKALDIA****India, handitasun eta urrikari****151****Indiar ofiziala**

Hullan zaitetz honaxe.  
 Ez zara, arauz, Ghandi.  
 Ager itzatzu paperak,  
 omen iraultzale handi.

**152****Indiar polizia**

Azkenekoz hartu dugu.  
 Sar dezagun presontegian  
 ingelesek nahi bezala.  
 Guk behar dugu hala egin.

**153****Pierra Lhande**

Ene izena da Lhande.  
 Ez naiz batere deitzen Ghandi.  
 Errotik naiz euskalduna.  
 Lhande naizela konpreni.

**154**

Otoi, eman paper horiek.  
 Utz nazazue joatera.  
 Presondegitik heldu naiz  
 doietarik eskapatzera.

**155****Denek**

Damurik, ez baitzara Gandhi.  
 Barka, jauna, oker gara.  
 Xerka dezagun urrunago  
 gure independentista.

**156****Pierra Lhande**

Bidaia unagarria  
 Indiako erresuman.  
 Oro Jainko seme dira  
 brahmanen kartier honetan.

**157****Aita van Spreeken**

Sekula ez dugu eginen  
 jende horietarik kiristi.  
 Jesuitak biguindurik,  
 ezin hunkiez axolutzen.

**158****Pierra Lhande**

Gure misionistak dira  
 beti libratzen laneko.  
 Haien unibersitateek  
 badute ikasle franko.

**hullantu:** hurbildu**arauz:** dirudienez**omen iraultzaile handi:**  
iraultzaile handi omen zarena**doietarik:** ozta-ozta**damurik:** zoritxarrez**unagarri:** nekagarri**kartier:** eskualde**kiristi:** kristau**ezin hunki:** ukiezin, paria**misionista:** misiolari

**159**

Kolonizatzea akabo da  
Gandhi ez da zedituko  
Ez date sekulan akort  
Kastaren desegiteko

**160****Aita van Spreeken**

Frantses Xabierren hobia  
Nahi düe zabaltü  
Erromak galtatürük  
Nik ükenen dü't destrenpü

**161****Pierra Lhande**

O herritar maitea  
Sütan da ene bürüa  
Ez da bortizkeriagatik  
Bena bihotz minaren asmüa

**162****Aita van Spreeken**

Fama düzü Indian ere  
Ez zite egon erpaetürük  
Badüzü ikastegi bat  
Zure izenaz bateiatürük

**163**

A India sakratüa!  
Haren esklabotartzünak  
Hona itxüra güziak  
Zük jadanik galtatüak

Mugaz gaindiko dantza

**159**

Kolonizatzea akabo da.  
Gandhi ez da zedituko.  
Ez dateke sekulan akort  
kastaren desegiteko.

**160****Aita van Spreeken**

Frantzisko Xabierren hobia  
nahi dute zabaldu  
Erromak galdaturik.  
Nik ukanen dut destrenpu.

**161****Pierra Lhande**

O, herritar maitea,  
sutan da ene burua.  
Ez da bortizkeriagatik,  
baina bihotz-minaren asmoa.

**162****Aita van Spreeken**

Fama duzu Indian ere.  
Ez zaitetz egon erpaiturik.  
Baduzu ikastegi bat  
zure izenaz bataiaturik.

**163**

A, India sakratua!  
Haren esklabotasunak!  
Hona itxura guztiak  
zuk jadanik galdatuak.

**zeditu:** errenditu  
**dateke:** izango da  
**akort izan:** ados egon

**galdatu:** eskatu  
**destrenpu:** ondoez

**erpaiturik:** irrikan

**itxura:** figura  
**galdatu:** eskatu

**18. JELKALDIA****Pausua Tintua bordan****164****Pierra Lhande**

Jaun depütatü, senatürak  
Jinik egün Zalgizera  
Arrabotüa zabal eta  
Goatzen Tintürabordetara

**165**

Ene gaüaldi maiteenak  
Ligiko kabanen dira  
Denbora han iragaitiak  
Alageratzen deit bihotza

**166****Valentino**

Aita, ürzoak hor dira  
Behin-behin ützi meza  
Zü ihizlari haütüa  
Ez otoi ützi zure xantza

**167****Pierra Lhande**

Bertan ekar ene arma  
Bi tiro eta arrakarga  
Ez dügü ürrentürük meza  
Dominus vobiscum,cum spiritu tuo

**168****Xarles de Launet**

Margoton 'ta Valentino  
Bego Pierra pausatzer  
Izigarri einherik beita  
Zoazkitzaie lagüntzera

**169**

Bere bürüzagi handiek  
Ez ikusten haren karga  
To ! Hortxe bada ügatz bat  
Hegaxti xuri sakratüa

**18. JELKALDIA****Pausua Tintua bordan****164****Pierra Lhande**

Jaun diputatu-senatariak,  
jinik egun Zalgizera,  
errebotea zabal eta  
goazen Tintua bordara.

**165**

Ene gaualdi maiteenak  
Ligiko kabanen dira.  
Denbora han iragateak  
alegeratzen dit bihotza.

**166****Valentino**

Aita, usoak hor dira.  
Behin-behin utzi meza.  
Zu, ehiztari hautua.  
Ez, otoi, utz zure xantza

**167****Pierra Lhande**

Bertan ekar ene arma.  
Bi tiro, eta errekarra.  
Ez dugu urrendurik meza.  
-Dominus vobiscum. -Cum spiritu tuo.

**168****Xarles de Launet**

Margoton eta Valentino,  
bego Pierra pausatzer.  
Izigarri unaturik baita,  
zoazkiote laguntzera.

**169**

Bere buruzagi handiek  
ez ikusten haren karga.  
To! Hortxe bada ugatz bat,  
hegazti zuri sakratua.

**pausu:** atsedan**jin:** etorri  
**errebote:** pilotaleku**kabana:** txabola**behin-behin:** aldi batez**xantza:** aukera**bertan:** berehala**urrendu:** amaitu**pausatu:** atsedan hartu  
**unatu:** nekatu

**19. JELKALDIA****Eritzea eta ahaztea****170****Marcel Lhande**

Piok üken dü arrenküra  
 Bürüa honkirik bortizki  
 Hiru hilabetez isilik  
 Eüskaraz zaikü iratzarri

**171****Karolina de Menditte**

Ene kosi maiteari  
 Jinkoak eman düana elki  
 Fama handia bildurik  
 Hein hortan da maleruski

**172**

Nahi nuke saintü maiteek  
 Xabier eta Loiola  
 Eman dizen korajea  
 Et' ontsa lagünt dezela

**19. JELKALDIA****Eritzea eta ahaztea****170****Marcel Lhande**

Piok ukan du arrangura,  
 burua hunkirik bortizki.  
 Hiru hilabetez isilik,  
 euskaraz zaigu iratzarri.

**171****Karolina de Menditte**

Ene kusi maiteari  
 Jainkoak eman diona ilki.  
 Fama handia bildurik,  
 hein horretan da, maluruski.

**172**

Nahi nuke saindu maiteek,  
 Xabier eta Loiola,  
 eman diezaioten kuraia,  
 eta ontsa lagun dezatela.

**arrangura:** kezka**hunki:** ukitu**kusi:** lehengusu**ilki:** kendu**maluruski:** zoritxarrez**kuraia:** kemen

**KANTA IX**  
**Iñaki santuaren otoitza**

**i1**

Hona ni Jauna, har ene askatasüna,  
 Ene oritmen, ene adimen osoa.  
 Har nik dūdan güzea  
 Eta enea den dena,  
 Zük eman deitazüt,  
 Zuri Jauna düt bihurtzen.  
 Dena zurea da, egizü denetan  
 Nahi dūzüna.  
 Emadazüt zure maitarzün eta grazia,  
 Horieki badiket nahikoa. Halabiz.

**KANTA IX**  
**Iñaki santuaren otoitza**

**i1**

Hona ni, Jauna. Har ene askatasuna,  
 ene oroimen, ene adimen osoa.  
 Har nik dudan guztia,  
 eta enea den dena.  
 Zuk eman didazu.  
 Zuri, Jauna, dizut bihurtzen.  
 Dena zurea da. Egizu denetan  
 nahi duzuna.  
 Emazkidazu zure maitasun eta grazia.  
 Horiekin baduket nahikoa. Hala biz.

**bihurtu:** itzuli

**duket:** izango dut



173

**Constantin bedezia**

Orai bere herboldura  
Emeki hedatuko da  
Jarraik dezan irratian,  
Ükeiten badü baimena

174

**Laffitte kalonjea**

Irratia kentü deie  
Dominikano horien lana  
Jeloskeria azkar da  
Honen malürra egin düana

175

**Marcel Lhande**

Egitekoa hasirik  
Bonbardatzeek ekürarazi  
Gerlak deio ekarriko  
Ahazdüra anaiari

176

Normandiako iheslarier  
Düelarik bide bazterretan  
Kobesioea emaiten deie  
Horko eliza hütsetan

177

**Madalena Jauregiberri**

Gerlak beno haboro  
Hunki deio bihotza  
Zalgizeko ikasgian  
Mintzatzen düe frantsesa

178

**Marcel Lhande**

Behar dügü borrokatü  
Erakats dezen euskara  
Mintzajearekin batean  
Altxa dezagün kültüra

179

**Madalena Jauregiberri**

Mintza dadin euskara  
Etxen eta kanpoan  
Txoria kantan bezala  
Gük ere kanta orotan

173

**Constantin bedezia**

Orain bere herboldura  
emeki hedatuko da.  
Jarraiki dezan irratian,  
ukaten badu baimena.

174

**Laffitte kalonjea**

Irratia kendu diote.  
Domingotar horien lana.  
Jeloskeria azkar da.  
Honen malurra egin duana.

175

**Marcel Lhande**

Egitekoa hasirik,  
bonbardatzeek ekurarazi.  
Gerrak dio ekarriko  
ahaztura anaiari.

176

Normandiako iheslariei,  
dutelarik bide bazterretan,  
konfesioa ematen die  
horko eliza hutsetan.

177

**Madalena Jauregiberri**

Gerrak baino haboro  
hunki dio bihotza.  
Zalgizeko ikasgian  
mintzatzen dute frantsesa.

178

**Marcel Lhande**

Behar dugu borrokatu,  
irakats dezaten euskara.  
Mintzairarekin batean,  
altxa dezagun kultura.

179

**Madalena Jauregiberri**

Mintza dadin euskara  
etxen eta kanpoan.  
Txoria kantan bezala,  
guk ere kanta orotan.

**bedezi:** sendagile  
**herboldura:** ahultze

**azkar:** sendo, indartsu  
**malur:** zorigaitz

**ekurarazi:** geldiarazi

**haboro:** gehiago  
**hunki:** ukitu  
**ikasgia:** ikastegi

**etxen:** etxean

**KANTA X**  
**Gizon zaharra**

**j1**

Non dira leheneko bihotzminak  
 Nion, atzo, ixilka ene arimari  
 Hi bahua, kantuz, eztiki  
 Zelügaineko zorionarat  
 Non dira lehenko bihotzminak

**j2**

Non dira leheneko oldarrak  
 Nion, atzo, ixilka ene arimari  
 Hi, orai loak hartzen, urtegi  
 Lo den bezala arraunen ritmoan  
 Non dira leheneko oldarrak

**j3**

Non dira leheneko gaüekoak  
 Nion, atzo, ixilka ene arimari  
 Hi, gar eta erreinü bezain argi  
 Zerü urdina dirdiratsü  
 Non dira leheneko gaüekoak

**KANTA X**  
**Gizon zaharra**

**j1**

«Non dira lehenko bihozminak?»,  
 niotson atzo, isilka, ene arimari.  
 Hi bahoia, kantuz, eztiki,  
 zeru gaineko zorionera.  
 Non dira lehenko bihozminak?

**j2**

«Non dira lehenko oldarrak?»,  
 niotson atzo, isilka, ene arimari.  
 Hi, orain loak hartzen, urtegi  
 lo den bezala arraunen erritmoan.  
 Non dira lehenko oldarrak?

**j3**

«Non dira lehenko gauekoak?»,  
 niotson atzo, isilka, ene arimari.  
 Hi, gar eta erreinu bezain argi,  
 zeru urdina dirdiratsu.  
 Non dira lehenko gauekoak?

**SATANAK****180****Satan**

Pierra Lhande belariko da  
eri eta zaharturik  
Oraikotik ez düe  
Parisen begiratzen

**181****Beeltzebub**

Lana gaixki egin dügü  
Pierra üztez apeztera  
Depütatü izan balitz  
Habo(ro) zaintükozi(a)n praubia

**182****Bulgifer**

Hargatik, beti izan dük  
Untsa trabaturik  
Builta beti mozturik  
eta üsü ümiliaturik

**183****Satan**

Pierra apphatiaren  
Kirixtigoa sozial horek  
Ez Aren dü lüzaz erain  
Bai ta bertan desagertü

**184****Beeltzebub**

Lan ederra egin diagu  
Bena beharrezkoa ez  
Ezin dügü kordokazi  
Eüskal Herriko kultura

**185****Satan**

Ber gauza ondokuentako  
Egin ahala eginik ere  
Eta mente beharko da  
Xede hortarat heltzeko

**SATANAK****180****Satan**

Pierra Lhande belauriko da,  
eri eta zaharturik.  
Oraingotik ez dute  
Parisen begiratzen.

**181****Beeltzebub**

Lana gaizki egin dugu  
Pierra üztez apaiztera.  
Diputatu izan balitz,  
haboro zainduko zian pobrea.

**182****Bulgifer**

Hargatik, beti izan duk  
ontsa trabaturik,  
bulta beti mozturik,  
eta usu umiliaturik.

**183****Satan**

Pierra Apphatiaren  
kiristigo sozial horrek  
ez hain du luzaz erein,  
bai eta bertan desagertu.

**184****Beeltzebub**

Lan ederra egin diagu,  
baina beharrezkoa ez.  
Ezin dugu kordokarazi  
Euskal Herriko kultura.

**185****Satan**

Ber gauza ondokoendako,  
egin ahala eginik ere.  
Eta mendea beharko da  
xede horretarat heltzeko.

**eri:** gaixorik**begiratu:** zaindu**bulta:** oldar**usu:** sarri, maiz**kiristigo:** kristautasun**kordokarazi:** kolokan jarri

## 20. JALKADIA

### Pilotarien anderea

186

#### Pierra Lhande

Birjina bat pausatü düt  
Baionako elizan  
Mündüko hontarzünak  
Karreatzen dü berartan

187

Haren haurrak zerbait badü  
Ontsa tinkatürrik esküan  
Ororek ezagütü dügü  
Pelota Eüskal Herrian

188

Soegizüe jarlekü hori  
Pelotakari bat bezala  
BUILTATÜKO dela üdüri  
Obra emankorregana

189

#### Justin Berterretxe

Osaba Pio kuntatü düzü  
Birjina züela zikintü  
Nor ote ausartü da  
Higanauten lana lükezü

190

Jana Dalbreten denboran  
Da historia hori igaranik  
Eta gure pelotakaria  
Isil-jokütik kentürrik

191

#### Pierra Lhande

Bakoitza da egiazki  
Jesüs hori pelotakari  
Beilagüne bat behar da  
Heben Zalgizen eraiki

192

Joküa maite düen gazteer  
Üdüri opari bezala  
Dona Maria Zalgizekoak  
Ontsa süstenga ditzala

## 20. JALKADIA

### Pilotarien anderea

186

#### Pierra Lhande

Birjina bat pausatu dut  
Baionako elizan.  
Munduko ondasunak  
garraiatzen ditu bere hartan.

187

Haren haurrak zerbait badu  
ontsa tinkaturik eskuan.  
Oroek ezagutu dugu  
pilota Euskal Herrian.

188

So egiozue jarleku horri.  
Pilotari bat bezala  
bultatuko dela iduri  
obra emankorregana.

189

#### Justin Berterretxe

Osaba Pio, kontatu duzu  
Birjina zuela zikindu.  
Nor ote ausartu da?  
Higanoten lana litzateke.

190

Joana D'Albreten denboran  
da historia hori igaranik,  
eta gure pilotaria  
isil-jokotik kendurik.

191

#### Pierra Lhande

Bakoitza da egiazki  
Jesus hori, pilotari.  
Beilagune bat behar da  
hemen, Zalgizen, eraiki.

192

Jokoa maite duten gazteei  
iduri opari bezala.  
Dona Maria Zalgizekoak  
ontsa sostenga ditzala.

pausatu: ipini

bultatu: oldartu  
iduri (du): dirudi

higanot: protestante

igaran: igaro

beilagune: santutegi

iduri (du): dirudi

**KANTA XI****Pilota****k1**

Emeki zoinen ixil jokü aitzinean  
 Erriño bat deiegü hor abiatzean  
 Haritx lerdnaren balde, gizonki ederrez,  
 Prestik dütügü orai, irabazteko aidez !

**k2**

Eskü hüska, pailoti(a)n, Xixterra handian  
 Güdüko dago beti, segurrik borroka !  
 Trunpatzez eta lotzaz, segi indarrian,  
 Bürüz dena hor dela aztalian goaita !

**k3**

Begikaldiari esker, ahürrak dü indar  
 Besoa akitürrik, bena zankoak azkar  
 Ez dü behar ttipitü, haboroziz zeditü  
 Etxeki ta ürrentü, beharko bürütü !

**k4**

Garaipenaren bila, indarra hedatüz  
 Saihesten jokülariak, gogotik be(re) aintza  
 Zoin gehiagoka hau, ürrentürrik ontsa  
 Anaietarzünean, denak hasten kantüz...

**k Errepika**

Hain maite dügü so egitea  
 Hain maite ere jokatzea  
 Herriko plazan edo trinketian  
 Zü gure deitzen, gure aidatzen  
 Gora, gora zü pelota !

Dantza

**KANTA XI****Pilota****k1**

Emeki, zeinen isil joko aitzinean.  
 Irriño bat diegu hor abiatzean  
 Haritz lerdnaren balde, gizonki ederrez.  
 Prestik ditugu orain, irabazteko airez!

**k2**

Esku huska, palotean, xixtera handian,  
 guduka dago beti, segurrik borroka!  
 Tronpatzez eta lotsaz, segi indarrian.  
 Buruz dena hor dela aztalean goaita!

**k3**

Begikaldiari esker, ahurrak du indar.  
 Besoa akiturrik, baina zangoak azkar.  
 Ez du behar ttipitu, haboroziz zeditu.  
 Atxiki eta urrendu, beharko burutu!

**k4**

Garaipenaren bila indarra hedatuz,  
 saihesten jokalariak gogotik bere aintza.  
 Zeingehiagoka hau urrendurik ontsa,  
 anaitasunean, denak hasten kantuz.

**k Errepika**

Hain maite dugu so egitea,  
 hain maite ere jokatzea.  
 Herriko plazan edo trinketean  
 zu gure deitzen, gure airatzen.  
 Gora, gora, zu, pilota!

**balde:** antzeko  
**aire:** antz, itxura

**palote:** erraketa

**tronpatu:** engainatu  
**aztal:** orpo / takoi  
**goaitatu:** itxaron / zelatatu

**begikaldi:** begirada

**haboroziz:** are gutxiago  
**zeditu:** amore eman  
**urrendu:** amaitu

**aintzan:** loria

**airatu:** suspertu

## 21. JELKALDIA

### Eskerrak biziari

193

**Marcel Lhande**

Ene anaie gehiena  
Nola hitarik berezi ?  
Dolü eta nigarrrik gabe  
Memento hortan lazgarri

194

Amiatzen dügü orano  
Jarraiki düan bide ederra  
Abil hoa dolü gabe  
Etxekoen ikustera

195

**Charles de Launet**

Lotü behar da ahalaz  
Seküla galdüko ez denari  
Honen bidea jarraikiz  
Segitü abis honari

196

Zure herexa baliosenak  
Beti dirade bizirik  
Hitzeman neizün bezala  
Olerkiak hedatürik

197

**Sor Marie Gabrielle**

Gure jauna aspalditik  
Kartsüki düzü goraltxatü  
Bai 'ta jakitatearekin  
Ümilki beti zerbütatü

198

Sofritzez honart ezazü  
Etsitze lazgarrikoa  
Azkarren bidea hortxe  
Date eternitatekoa

## 21. JELKALDIA

### Eskerrak biziari

193

**Marcel Lhande**

Ene anaia gehiena,  
nola hitarik berezi  
dolu eta negarrik gabe  
memento lazgarri horretan?

194

Amiratzen dugu oraino  
jarraiki duan bide ederra.  
Abil-hoa dolu gabe  
etxekoen ikustera.

195

**Charles de Launet**

Lotu behar zaio ahalaz  
sekula galduko ez denari.  
Honen bidea jarraikiz,  
segitu abisu onari.

196

Zure herexa baliosenak  
beti dira bizirik.  
Hitzeman nizun bezala,  
olerkiak hedaturik.

197

**Sor Marie Gabrielle**

Gure Jauna aspalditik  
kartsuki duzu goraltxatu,  
bai eta jakitatearekin  
umilki beti zerbitzatu.

198

Sufritzez onar ezazu  
etsitze lazgarrikoa.  
Azkarren bidea hortxe  
dateke; eternitatekoa.

**gehien:** nagusi**amiratu:** miretsi  
**oraino:** oraindino**ahalaz:** ahal den neurrian**abisu:** aholku**herexa:** aztarna, arrasto**kartsuki:** sutsuki  
**goraltxatu:** goretsi, laudatu**azkar:** kementsu  
**dateke:** izango da

**KANTA XII**  
**Azken bidaiaren tenorea**

**I1**

Seküla gazte denboran  
 ez nüan pentsatzen hiltzeari,  
 Hüllantürrik beitzira,  
 goatzan algarreki !  
 Ene ametsa zelakoz,  
 nahi zütüt jarraiki.

**I2**

Olerki honkigarrienek  
 baziren arrakasta,  
 Horik ükena gatik  
 begiratü düt ümiltarzüna,  
 Bertüte huni esker,  
 egon niz nizan bezala!

**I3**

Maite üken düt Jinkoa,  
 mündüa et'Euskal herria,  
 Ikasi düt gaizak  
 kanbiatzen ahal güntila,  
 Bizi orotan, hori zen  
 üken düdan nahiküntea.

**I4**

Azken bidajea heltürrik,  
 hor düt irustarzüna,  
 Bizirik bezala hiltzen niz,  
 heben ütirik ene arima,  
 Oroer emaiten dereiziet,  
 orozbakoz, ene odola.  
 Milesker biziari!

Satan

**KANTA XII**  
**Azken bidaiaren tenorea**

**I1**

Sekula gazte denboran  
 ez nuen pentsatzen hiltzeari.  
 Hullanturik baitzira,  
 goazen elkarrekin!  
 Ene ametsa zelakoz,  
 nahi zaitut jarraiki.

**I2**

Olerki hunkigarrienek  
 bazuten arrakasta.  
 Horiek ukanagatik,  
 begiratu dut umiltasuna.  
 Bertute honi esker,  
 egon naiz naizen bezala!

**I3**

Maite ukan dut Jainkoa,  
 mundua eta Euskal Herria.  
 Ikasi dut gauzak  
 kanbiatzen ahal genituela.  
 Bizi orotan, hori zen  
 ukan dudana nahikunde.

**I4**

Azken bidaia heldurik,  
 hor dut urostrasuna.  
 Bizirik bezala hiltzen naiz,  
 hemen utzirik ene arima.  
 Oroei ematen dizuet,  
 orozbakoz, ene odola.  
 Milesker biziari!

**hiltzeari:** hiltzeaz  
**hullantu:** hurbildu

**begiratu:** zaindu

**urostasun:** zorion

**orozbakoz:** betiko

**Epilogoa****199**

Eskerrak soegile maiteak  
 Pastoral da akabatü  
 Pentsatzen dügü gurekin  
 Ez zideela debeiatü

**200**

Gogotik jokatü dügü  
 Pierra Lhanderen istoria  
 Kirixti eta eüskaldün  
 Bietarik bardin betea

**201**

Egonen da orozbakoz  
 Praubeen lagüntzalea  
 Miserian sartürük direnen  
 Bihotzen altxazalea

**202**

Holako Pierra Lhande hanitz  
 Behar günüke haboro  
 Mündü barreiat eta praube  
 Honen xüxenealatzeko

**203**

Etxahun Iruri bezala  
 Gure beste gizongaitza  
 Gazte-gaztetik zinez maite  
 Züan Eüskal Herria

**204**

Hegoaldeko eüskaldünek  
 Ohoratü düe emanez  
 Lhande izena bi arrüer  
 Iparraldekoek nolaz ez

**205**

Berriz arte adiskideak  
 Biba gure mintzajea  
 Biba gure Xiberoa  
 Eta gora Eüskal Herria

**Epilogoa****199**

Eskerrak, so-egile maiteak.  
 Pastoral da akabatu.  
 Pentsatzen dugu gurekin  
 ez zaretela debeiatu.

**200**

Gogotik jokatu dugu  
 Pierra Lhanderen historia,  
 kirixti eta euskaldun,  
 bietarik berdin betea.

**201**

Egonen da orozbakoz  
 pobreen laguntzailea,  
 miserian sarturik direnen  
 bihotzen altxatzailea.

**202**

Horrelako Pierra Lhande anitz  
 behar gunuke haboro,  
 mundu barreiatu eta pobre  
 honen zuzeneratzeko.

**203**

Etxahun Irurik bezala,  
 gure beste gizon gaitza,  
 gazte-gaztetik zinez maite  
 zuen Euskal Herria.

**204**

Hegoaldeko euskaldunek  
 ohoratu dute emanez  
 Lhande izena bi kaleri.  
 Iparraldekoek nolaz ez?

**205**

Berriz arte, adiskideak.  
 Biba gure mintzaira!  
 Biba gure Xiberoa!  
 Eta gora Euskal Herria!

**debeiatu:** aspertu**kirixti:** kristau**orozbakoz:** betiko**haboro:** gehiago  
**barreiatu:** lasaikeriazko  
**zuzeneratu:** konpondu**gaitz:** handi



## AZKEN KANTOREA

### Lilizko lur ederretan

#### m1

Xori ttipi bat hegalez doa  
 Iruri-Zalgizen gora,  
 Izarren petik ikusi dügü,  
 kantüz, gure gana horra.  
 Egünko jeia asmatzen dila,  
 handitzen kinperrez gora,  
 Azi berria erein dügülakoz,  
 ützüli gabe alorra.

#### m Errepika

Junta gitian xede honean,  
 amets goxo batetan,  
 Ützirik herra, jeloskeria,  
 mündüko gora-beheretan,  
 Euskal Herriko mintzaje ederra  
 etxekiz beti herrietan,  
 Iruri-Zalgize sartü direla  
 lilizko lür ederretan !

#### m2

Coluche beno lehen, Pierrak  
 bere denboran bazin ber-ber oihüa,  
 Prauben artean bizitüz,  
 beti salatü injustizea.  
 Egün bezala izan balia  
 TB eta irratia,  
 Entzün ginio, herriondotarik,  
 peredikü honkigarria.

#### m3

Oroek jakin behar düzüe  
 Pierra Lhande nor ote zen:  
 Olerkizale, peredikazale,  
 gogotik lanari lotzen,  
 Bena haboro egin beharrez,  
 beti pentsamentükatzen.  
 Azkenekoz, orok ützirik,  
 pausatü da Atarratzen.

## AZKEN KANTOREA

### Lilizko lur ederretan

#### m1

Txori ttipi bat hegalez doa  
 Iruri-Zalgizen gora.  
 Izarren petik ikusi dugu  
 kantuz guregana, horra.  
 Egungo jaia asmatzen duela,  
 handitzen binperrez gora,  
 hazi berria erein dugulakoz  
 itzuli gabe alorra.

#### m Errepika

Junta gaitezen xede onean,  
 amets gozo batean,  
 utzirik herra, jeloskeria,  
 munduko gorabeheretan.  
 Euskal Herriko mintzaira ederra  
 atxikiz beti herrietan,  
 Iruri-Zalgize sartu direla  
 lilizko lur ederretan!

#### m2

Coluche baino lehen, Pierrak  
 bere denboran bazuen ber-ber oihua.  
 Pobrean artean biziz,  
 beti salatu injustizia.  
 Egun bezala izan, balia  
 telebista eta irratia,  
 Entzun gerino herri-ondoetarik  
 prediku hunkigarria.

#### m3

Oroek jakin behar duzue  
 Pierra Lhande nor ote zen:  
 olerkizale, predikartzaile,  
 gogotik lanari lotzen.  
 Baina haboro egin beharrez  
 beti pentsamendukatzen.  
 Azkenekoz, orok utzirik,  
 pausatu da Atarratzen.

**asmatu:** entzun, sumatu  
**handitu:** harrotu  
**binper:** ifrentzu, iruntzi

**herra:** gorroto

**herri-ondo:** aldiri  
**geniro:** genezake

**haboro:** gehiago  
**pentsamendukatu:**  
                   gogoeta egin  
**pausatu:** hil